



2011/2012 IKASTURTERAKO JARRAIBIDEAK

Ebazpena, 2011ko maiatzaren 4koa, Ikastetxeen Zuzendariarena eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendariarena, 2011/2012 ikasturterako, Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailan ari diren ikasleentzat Testuliburuaren eta Curriculum-materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programa garatzeko jarraibideak onartzen dituena

1.- LEGE OINARRIAK.

Programa Ebazpen honetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Programa hau kudeatzeko eta garatzeko sortuko diren araudi orokorretan oinarrituko da.

Aplikagarria den gainontzeko araudia betetzeari utzi gabe, batez ere honako araudi hauek beteko dira:

196/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, ikastetxe publikoen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa arautzen duena, apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuaren bidez aldatze dena.

Agindua, 2006ko urriaren 18koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, ikastetxe publikoen sarreren eta gastuen aurrekontu egoera banantzen dituena eta 196/1998 Dekretuaren eranskinak eguneratzen duena.

295/1998 Dekretua, azaroaren 3koa, EAEko ikastetxeetan erabiltzeko curriculum-a garatzeko ikasmaterialentzako baimena arautzen duena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun efektiboari buruzkoa, Estatukoa.

2.- PROGRAMAREN XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.

2011/12 ikasturtean **Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. zikloa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila** ematen duten ikastetxe publikoetan ezarriko da.

Honako hauek dira Programan sartzen diren ikasmaterialak:

a) Inprimatutako curriculum-materiala, berrerabil daitekeena, ikasleek banan-banan erabiltzera bideratua eta, dagozkion metodologia-orientabideei eta ebaluazio-irizpideei jarraiki, indarreko hezkuntza-arauegiak kasuan kasuko ziklo, maila eta irakasgairako ezarritako edukiak garatzen dituena.

b) Zentroek beren kasa prestatutako curriculum-materialak, berrerabil daitezkeenak. Zentroak bere kasa prestatutako materialtzat hartzen da zentro bakoitzaren berezko orientabideen arabera sortutako curriculum-materiala, curriculumetan ezarritako edukiak garatzen laguntzen duena eta ikasleek banan-banan erabiltzeko sortua, egile-eskubideak babesteko printzipioaren pean.

c) Ikasleek ikasturtean zehar banan-banan erabiltzeko prestatutako curriculum-materiala, dagozkion metodologia-orientabideei eta ebaluazio-irizpideei jarraiki, curriculum-edukiak garatzen laguntzen duena, baita lan koadernoak ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskumena du ikastetxeek beren kasa prestatutako curriculum-materialak balioztatzeko eta, hala badagokio, argitaratzeko arauak emateko.

Artikulu honetan zehazturiko materialak paper inprimatuan ez beste euskarri-motetan ere garatu eta aurkeztu ahal izango dira.



Ez dira programan bameratzen zentroko ikasleen erabilera orokorreko material eta ekipo didaktikoak, nahitaezko hezkuntza-mailetako hainbat esparru eta irakasgaitako edukiekin lotuak, esaterako, hiztegiak, irakurketarako liburuak, informatika-programak, etab.

3.- ERABILTZEKO EPEAK.

a) eta b) puntuetan aipaturiko materialak erabiltzeko epea 4 ikasturtekoa izango da, Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleei dagozkienak izan ezik; horiek ikasturte batez erabiliko dira.

Programa honen onuradun diren ikasleek, ikasturtean zehar, zentroak bere nahitaezko hezkuntza-mailetarako aukeratutako testuliburuak eta/edo materialak izango dituzte.

Berrerabil daitezkeen testuliburuak eta/edo material horiek didaktikoak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxean bertan geratuko dira, hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko.

4. PROGRAMAREN KUDEAKETA

Testuliburuak berrerabiltzeko programa ikastetxeak berak kudeatuko du, «testuliburu eta curriculum-materialen kudeaketa solidarioa» kontzeptupean. Programa zentroaren urteko kudeaketa-planean bameratuko da.

- Zentroko **Ordezkaritza-Organorenari** dagokio:

1.- Programaren antolaketa eta funtzionamendurako ildoak onestea.

2.- Programaren funtzionamendurako arautegia onestea; zentroaren antolaketa eta funtzionamendurako arautegiaren parte izatera pasako da.

3.- Programaren funtzionamendua ikuskatzea.

4.- Programaren kudeaketa ekonomikoa kontrolatzea, testuliburu eta curriculum-materialen erabilera egokiko ekarpena ordaintzeko modua onartuz, indarreko legerian ezartzen diren modalitateekin bat etorritik.

5.- Familiartekoei zentroak maila bakoitzean erabiliko dituen testuliburu eta curriculum-materialen berri ematea.

6.- Agindu honen xede diren testuliburuak eta materialak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea.

7.- Programaz arduratuko den zentroko batzordearen sorrera onartzea.

8.- Programa behar bezala gauzatzeko beharrezko diren bestelako funtzioak eta indarreko legeriak agintzen dizkionak.

- Programaz arduratzen den **zentroko batzordeak** honako kide hauek izango ditu, gutxienez:

- OOGko presidentea edo berak eskuordetzen duen beste edozein pertsona.

- Ikastetxeko idazkaria; batzordeko idazkari lanak beteko ditu.

- Ikasleen gurasoen bi ordezkari. Horietako batek OOGko kidea izan behar du eta organo horrek proposatuta aukeratu behar da; bestea, berriz, Ikasleen Gurasoen Elkarteak proposatuta aukeratu behar da.

- Lehen Hezkuntzako ziklo-koordinatzaileak edota Bigarren Hezkuntzakoak.

Hauek dira zentroko batzordearen funtzioak:

a) OOGri bidaltzea Pedagogi Batzordeak prestatutako duen zerrenda, hau da, agindu honen xede diren testuliburuak eta materialak osatutakoa, zentroak maila bakoitzean erabiliko dituenenak.

b) Agindu honen xede diren testuliburuak eta materialak eskuratzeko prozedura eta lekuak proposatzea. Guraso-elkarteak hala eskatzen badu, Batzordeak euren esku utzi dezake aipatutako prozeduraz arduratzea.

c) Familiei emango zaizkien testuliburu eta materialen zerrenda gainbegiratzeko, I. eranskinean agertzen den ereduarekin bat etorritik.



d) Materialak erabiltzeagatik familiek egin ditzaketen ekarpenei buruz indarreko legerian ezarritakoa betetzen dela kontrolatzea.

e) Uko egite indibidualak jasotzea.

f) Programaren helburuak betetzea, ebaluatzea eta OOGri hobekuntzak proposatzea.

g) Programako materialak babesteko eta zaintzeko, erregistratzeko eta identifikatzeko eta urtero berrikusteko prozedura zehaztea.

h) Baldin eta liburuak edo curriculum-materialak ez badira itzultzen edo ezin badira berrerabili ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu, haien ordaintzea eskatu zaio arduradunari. Hori egiteko prozedura ikastetxeko antolamendu- eta funtzionamendu-araudian jasoko da.

i) Proposatu OOGri, ikastetxeko antolamendu eta funtzionamendu araudian jasotzeko, zein neurri hartuko diren arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez badu, hau da, liburuak edota curriculum materialak itzultzen ez badira edo, itzuli arren, ezin badira berrerabili, ikasleak ez dituelako behar bezala zaindu.

j) OOGk, indarreko legeria betez, programa garatzeko agintzen dion beste edozein funtzio.

5.- ERABILERA ETA ZAINZA.

5.1.- Zentroek honako hauek jasoko dituzte beren antolaketa- eta funtzionamendurako arautegian: ikasleen esku utzitako testuliburuak eta curriculum-materialak erabiltzeko eta zaintzeko arauak; arduradunari dirua eskatzeko prozedura, material horiek galtzen baditu, edo ezin badira berrerabili behar bezala zaindu ez dituelako edo hondatuta daudelako, bai eta hartuko diren neurriak arduradunak eskatu zaion dirua ezarritako epean ordaintzen ez duenean.

5.2.- Berrerabil daitezkeen testuliburuak eta curriculum-materialak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxean bertan geratuko dira hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko, behin ongi zaindu direla eta hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko moduan daudela egiaztatuta; betiere zentroaren antolaketa- eta funtzionamendurako arautegiak ezartzen duena aintzakotzat hartuta.

6.- 2011/2012 IKASTURTERAKO FINANTZIAZIOA.

Lehen Hezkuntzako **1. ziklo**ko ikasle bakoitzeko kostea **118 eurokoa** da.

Lehen Hezkuntzako **2. ziklo**ko ikasle bakoitzeko kostea **134 eurokoa** da.

Lehen Hezkuntzako **3. ziklo**ko ikasle bakoitzeko kostea **138 eurokoa** da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle bakoitzeko kostea **210 eurokoa** da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle bakoitzeko kostea **230 eurokoa** da.

Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako, zentroak Sailaren ekarpen bat jasoko du urtero, ziklo horretan erabilitako materialak berrezartzeko; ekarpen hori zentroaren kontu baimenduetan sartuko da.

Gainerako zikloetan, finantzazio-eredua batez ere maileguan oinarrituko da, hau da, Sailak material guztiak berrezartzeko egin beharreko ekarpena lau urterik behin egingo da, ezarrita dagoen egutegiaren arabera.

Ikasturtean zehar Programara atxikitzen diren ikasle berriak direla eta, hasiera baten ikastetxearen baliabideekin aurre egin behar izango zaio gastu horri. Dena den, Sailak bigarren ekarpen bat egingo dio ikastetxeari ikasturte bukaeran, ikasle berrien kopuruaren arabera.

Baliteke ikasturtean zehar ikasleren bat edo gehiago zuen ikastetxea utzi eta beste batera joatea. Orduan, jatorrizko ikastetxeak ikasle horrek egindako ekarpenaren ordainagiria emango dio beste ikastetxe horretan agertu dezan, eta, horrela, testuliburu eta curriculum material berriak hartuko ditu bigarren ikastetxe horretan. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ordaindu dio ikastetxeari ikasle berri horri aurreraturiko materialaren gastua, aurreko lerrokadan esaten den legez.

Sailak ekarpen osagarriak egingo ditu maila batetik bestera aldaketarik gertatzen bada ikasleen kopuruan.



Gutxi gorabeherako kostua kalkulatzeko, Sailak zehazten dituen zenbatekoetan, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) 3. artikuluan ezarritako erabilera-epeak.
- c) Curriculum ofizialeko aldaketak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako baimena eman ondoren.

Sailaren ekarpena:

- 92 € Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasle bakoitzeko.
- 13 € Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle bakoitzeko.
- 14 € Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasle bakoitzeko.
- 21 € Bigarren Hezkuntzako 1. mailako ikasle bakoitzeko.
- 186 € Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle bakoitzeko.

Ikasle bakoitzaren ekarpena:

Sailak ematen dituen zerbitzuei dagozkien prezio publikoak zehazten dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuaren Aginduan agertzen dira ordaindu beharreko diru kopuruak. Sarrera hori egitea derrigorrezkoa da. Honako hauek dira:

- 26 € Lehen Hezkuntzako **1. zikloan** matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
- 29 € LHko **2. zikloan** matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
- 30 € LHko **3. zikloan** matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
- 40 € DBHko **1. mailan** matrikulatutako ikasle bakoitzeko.
- 44 € DBHko **2. mailan** matrikulatutako ikasle bakoitzeko.

Ekarpen horiekin guztiekin materialak erosteko orduan, lehentasuna izango dute curriculumak agintzen dituen derrigorrezkoak diren ikasgaietako testuliburuak.

Aipatzen den erosketaren zenbateko osoa handiagoa balitz ziklo bakoitzean estimatutako gastuen zenbatekoa baino, zentroak duen soberakinarekin osatuko da eta ez ikaslearen ekarpenaren igoerarekin. Ostera, ikastetxean saldirik geratzen bada, soberako dirua bertan geratuko da programako ikasmaterialak erosteko.

7.- ESKURATZEKO PROZEDURA.

Ikasturtea hasi aurretik, ikasturtean zehar erabiliko diren testuliburuak eta materialen zerrenda emango die zentroak ikasleei; testuliburu eta material horiek OOGk zehaztutako saltokietan erositakoak izango dira.

Testuliburuak eta curriculum-materialak aurrez adierazitako liburu-dendetan edo hornitzaileetan jaso behar dira, zentroko batzordeak ezarritako prozeduraren arabera.

Zentroek **I. eranskina** euskarri gisa edukita, dagozkien fakturak jasoko dituzte liburu-denda edo hornitzaileetan.

Zentroak urtero erosiko ditu hondatuta daudela-eta berrezarri behar diren liburuak, bai eta zentroak berak materialak prestatzeko behar dituen materialak ere, halakorik prestatzen bada.

I.eranskinean agertzen den zenbateko osoak ezin izango du ziklo bakoitzerako ezarritako gehienekoa gainditu. Edozelan ere, Zentroko Batzordeak zenbateko hori handitzea erabaki dezake, baldin eta testuliburuak eta curriculum-materialen loteak Hezkuntza Administrazioak emandako zenbatekoa gainditzeko bada, baina erabaki horrek, betiere, programaren enuntziatuarekin bat etorri behar du.

Zentroen kontratazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioarako autonomia arautzen dituzten arauetan ezarritako prozedurak errespetatu beharko ditu zentroak.

8.- KUDEAKETA EKONOMIKOA.

Programaren kudeaketa ekonomikoa zentroaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioan bameratuko da, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen kudeaketa ekonomiko-finantzarioarako araubidea arautzen duen uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan (apirilaren 5eko 67/2005 Dekretuaren bidez aldatu zen) eta zentroen diru-sarreraren eta gastuen



aurrekontu-egoerak xehatzen dituen eta 196/1998 Dekretuaren eranskinen osaera eguneratzen duen 2006ko urriaren 18ko Aginduan ezarritakoari jarraiki.

Programako kontabilitate kudeaketa arloko edozein zalantza argitzeko, deitu lurralde-ordezkaritzako Aurrekontu-Zerbitzura.

9.- KONTROLA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Programaren funtzionamendu administratiboa eta ekonomikoa ikuskatuko ditu, gai bakoitzeko organo eskudunen bidez. Horrekin lotuta, Programak ondo funtzionatzeko eta aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazioa eska diezaieke Sailak ikastetxeei. Horrez gain, Hezkuntza Ikuskaritzak bere eginkizunak gauzatu ditu.

Hezkuntza Sailburuordetzak beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak emango ditu Agindu honetan ezarritakoa betetzeko.

Halaber, programa behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazioa bidaltzeko eskatu ahal izango die zentroei.

Programaren jarraipena egiteko, "**Batzorde Nagusi**" bat eratuko da, eta, gutxienez, honako kide hauek izango ditu:

- Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria, edo berak eskuordetutako pertsona: lehendakaria izango da.
- Ikastetxeetako zuzendaria edo berak eskuordetutako pertsona.
- Aurrekontuen eta kudeaketa ekonomikoaren zuzendaria.
- Hezkuntza Sailburuordetzako teknikari bat.
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetako hiru ordezkeri, Hezkuntza sailburuordeak izendatuak.
- Ikasleen gurasoen elkarteetako hiru ordezkeri, lurralde historikoko bat, horietako bakoitzean gehiengodun den gurasoen elkarteak aukeratua.
- Ikastetxeetako hiru ordezkeri, Hezkuntza sailburuordeak izendatuak.

10.- UKO EGITEAK ETA BATERAEZINTASUNAK.

Programan parte hartu nahi ez duen Ikaslearen legezko ordezkeriak ikastetxeari jakinaraziko dio, **II. eranskineko** uko-egite eredu aurkeztuta. Ikastetxeak **2011ko ekainaren 30a** baino lehen bidaliko ditu eranskin horiek honako helbide honetara:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Ikastetxeen Zuzendaritza
Donostia - San Sebastian, 1
01010 – Vitoria-Gasteiz

Programan parte hartzeari uko egin dion ikasleak aukera galtzen du ikasmaterialak erosteko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ikasketa-laguntzetarako deialdian parte hartzeko.

Agindu honetan araututako programan parte hartzea bateragarria da programa horrek helburu dituen materialak eskuratzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila ez den beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako edozein laguntza jasotzearekin, baldin eta laguntza horiek guztiak batuta ez badute gainditzen ikasleak ordaindu beharrekoa (ebazpenaren 6. atala).

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 10ean

Marcelino Hernández Garduño

Cándido Hernández Garduño

IKASTETXEEN ZUZENDARITZA

HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA

**I. ERANSKINA / ANEXO I**Ikasturtea / Curso: **2011/2012**

Ikastetxearen Kodea / Código Centro: _____

Ikastetxea / Centro: _____

I.F.K / C.I.F.: _____

Hekbidea / Dirección: _____

Udalerría / Localidad: _____

Posta kodea / Código Postal: _____ Lurraldea / Territorio: _____

Tel: _____ Fax(a): _____

Posta elektronikoa / Dirección de correo electrónico: _____

Zuzendariak, BAIMENTZEN DU ikaslearen legezko ordezkaria, edo ikasleen gurasoen edota IGEko ordezkari den (1) _____ hurrengo zerrendan agertzen diren testuliburuak edo curriculum-materialak eskuratzeko OOGk aukeratutako establezimenduetatik.

Ei/La Director/a AUTORIZA al responsable legal del alumno/a o persona representantes de los Padres y Madres de alumnos/as o persona representante de la AMPA (1) _____ para que retire el material curricular que se relaciona en los establecimientos determinados por el OMR del centro:

K /Nº	Zikloa/ Ciclo	Maila/ Curso	Arloa/ Área	Testu Liburu edo Ikasmaterialaren izanburua / Título Libro de texto o material	Argitaletxea / Editorial	Ale Kopurua / Unidades	Prezioa / Precio
1							
2							
3							
4							
5							
5							
6							
7							
8							
9							
10							
11							
12							

_____ en _____ ko _____ (r)en _____ (e)

En _____, a _____ de _____ de _____

Zuzendaria / Ei/La Director/a

**II. ERANSKINA / ANEXO II****PROGRAMAN PARTE-HARTZEARI BANAKAKO UKO EGITEA /
RENUNCIA INDIVIDUAL A LA PARTICIPACIÓN EN EL PROGRAMA**

Ikastetxea / Centro: _____

Ikasturtea / Curso: **2011/2012**

Ikastetxearen kodea / Código Centro: _____

Udalerría / Localidad: _____ Lurraldea / Territorio: _____

_____, Jaun / Anderea

NAN: _____ duna, aipatutako ikastetxeko Lehen Hezkuntzako / Bigarren Hezkuntzako
_____ mailan matrikulatutako _____ Ikaslearen legezko
ordezkari naizen aldetik,

D./D^a _____ con

DNI: _____, como representante legal del
alumno/a _____

matriculado/a en este centro el **2011/2012** en el nivel _____ de Educación Primaria / Educación
Secundaria.

ADIERAZTEN DU / DECLARA

Ikasle horrek Testuliburuén eta Curriculum-Materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programan 2011/2012 ikasturtean parte-hartzeari uko egiten diola. Arrazoiak honako hauek dira: / que dicho/a alumno/a renuncia a participar, en el curso 2011/2012 en el Programa de Gestión Solidaria de Libros de Texto y Material Curricular por el siguiente motivo:

_____ (e)n _____ ko _____ (a) ren _____ (e) an

En _____, a _____ de _____ de _____

Izp.: / Fdo: _____